

Miles se movilizan en más de 40 localidades de EH exigiendo ¡Que la crisis la pague el capitak

EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA :: 21/06/2020

Ese “nuevo orden” es un estado de excepción y alarma continuo para las trabajadoras y los sectores más golpeados

Éstas son las **reivindicaciones principales** que han salido hoy a la calle:

1. Reforma fiscal para que la crisis la pague el capital.
2. Desarrollo de servicios públicos y publicación de subcontratas.
3. Sistema de cuidados público, universal y gratuito.
4. Equiparar la cuantía de la Renta de Garantía de Ingresos al Salario Mínimo Interprofesional y el derecho a la vivienda.
5. Pensiones mínimas de 1.080 euros.
6. Salario mínimo 1.200 euros y una semana laboral máxima de 35 horas.
7. Regularización de todas las personas.

Además de estas medidas, éste es el mensaje que hoy han lanzado las personas que representan a la Carta Social:

Nos hemos quedado en casa y ahora vamos a tomar las calles. Así dice la convocatoria de la jornada de movilización de hoy. En los peores momentos del virus ha sido imprescindible confinarse en nuestras casas, al menos quienes han tenido la oportunidad de hacerlo, para garantizar la salud de todos y todas. Ahora es imprescindible salir a la calle para luchar por nuestros derechos.

La crisis sanitaria ha golpeado a todos los sectores, pero especialmente a los más vulnerables, desde los despidos de trabajadores precarios, los ataques contra personas migrantes y la violencia de todo tipo, hasta el aumento de la violencia contra las mujeres.

El capital no ha estado parado durante el confinamiento ni ha desaprovechado la ocasión para defender los intereses de quienes más tienen. Ejemplos claros son, por ejemplo, los esfuerzos que hicieron para mantener abiertos sectores productivos no esenciales o las recientes reformas fiscales regresivas que plantean y han llevado a cabo las diferentes instituciones. Recordemos que hoy, todavía hay 2 trabajadores bajo tierra en Zaldibar. Han decidido profundizar en políticas contrarias a la mayoría social y que aumentan los beneficios de una minoría a costa de la salud y las condiciones de vida de la mayoría social. Esa es la fórmula que nos plantean para salir de esta crisis.

Sin embargo, la sociedad no ha estado parada en la lucha contra el virus. Hemos sido las personas trabajadoras, estudiantes o pensionistas las que hemos parado el virus y las que realmente hemos sustentado esta sociedad. Somos nosotras las que movemos el mundo y somos nosotras las que, en ese camino, tenemos el poder de transformar el mundo. Especialmente destacables han sido las redes de cuidados y solidaridad creadas en barrios y

pueblos.

La autodefensa colectiva de las personas más vulnerables la hemos construido en “auzolan” entre todos y todas, y hemos creado mecanismos para defender una vida digna. Este país vuelve a poner de manifiesto su fuerza y su capacidad de priorizar, en los peores momentos, las necesidades de la gente sobre el capital. Esa es la fórmula que tenemos para hacer frente a la crisis: poner los intereses de las personas trabajadoras y de la ciudadanía en el centro, y ahora, es el momento en el que las instituciones deben cubrir las necesidades detectada a través de los servicios públicos.

Ahora nos toca canalizar y encauzar esa fuerza colectiva para hacer frente a los retos que tenemos aquí. El aumento de la precariedad va a ser una realidad más que probable y la reacción neoliberal, racista y heteropatriarcal se va a recrudecer. Toca apretar filas y hacer frente con determinación a lo que viene y en clave ofensiva. Las crisis también son oportunidades para cambiar de raíz el sistema. Vamos a por ello.

Las últimas Huelgas Feministas y la mesa que se creó en plena pandemia para tratar la crisis de cuidados, la Huelga General del 30 de enero, las movilizaciones de las personas pensionistas, las numerosas iniciativas en defensa de los derechos de las personas migrantes, las manifestaciones y acciones por la emergencia climática... No partimos de 0. El COVID no nos ha pillado con el pie cambiado. Ahora es más importante que nunca recuperar e incidir en el mensaje que hemos repetido en las últimas convocatorias: es necesario tejer redes y alianzas entre personas y movimientos, es urgente construir movilización y organización desde abajo y es vital tomar las calles.

Venimos con impulso, con impulso y vocación de cambiar las cosas e ir a la raíz de los problemas. No queremos volver a la normalidad ni saltar a una supuesta nueva normalidad. Ese “nuevo orden” es un estado de excepción y alarma continuo para las trabajadoras y los sectores más golpeados; es una crisis permanente para las personas que peor lo están pasando. Por eso es imprescindible seguir dando pasos hacia un modelo basado en el cambio social y que ponga la dignidad y los derechos de todas las personas en primera línea.

¡Que la crisis la pague el capital!

“Publikoa, funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz”

Bizitza lehenesteko eskariak kaleak hartu ditu gaur

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako mobilizazio egunak bere goizeko ekitaldiak gauzatu ditu arrakasta handia lortuz lau hiriburuetan. Egun honen aldarrikapen nagusiak honakoak dira:

1. Zerga erreforma, krisia kapitalak ordain dezan
2. Zerbitzu publikoak garatu eta azpikontratak publikatu
3. Zaintza sistema publiko, unibertsal eta doakoa.
4. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekin parekatu eta etxebizitza eskubidea.

5. 1.080 eurotako gutxieneko pentsioak.
6. 1.200 eurotako gutxieneko soldata eta gehienez 35 ordutako lan-astea.
7. Pertsona guztien erregularizazioa.

Hortik harago, Karta Sozialaren bozeramaileek honako mezua zabaldu dute:

Etxean geratu gara eta orain kaleak hartuko ditugu. Horrela dio gaurko mobilizazio egunaren deialdiak. Birusaren unerik txarrenetan ezinbestekoa izan da gure etxeetan konfinatzea, horretarako aukera izan dutenek behintzat, guztion osasuna bermatzeko. Orain ezinbestekoa da kalera ateratzea gure eskubideen alde borrokatzeko.

Osasun krisiak sektore guztiak baina bereziki zaurgarrienak kolpatu ditu, langile prekarioen kaleratzetatik hasi, pertsona migranteen kontrako erasoetatik era guztietako indarkeria jarraitu, emakumeen kontrako biolentzia areagoturaino.

Kapitala ez da geldirik egon konfinamenduan zehar eta ez du aukerarik desaprobetxatu gehien dutenen interesak defendatzeko. Horren adibide garbiak dira, esaterako, beharrezkoak ez ziren sektoreak irekita mantentzeko egin zituzten ahaleginak edota orain dela gutxi, Foru Aldundiek egin duten zerga birmoldaketa erregresiboa. Gogoratu dezagun oraindik Zaldibarren 2 langile daudela lur azpian. Orain arteko zapalkuntzetan sakontzea erabaki dute gehiengo sozialaren kontrako politikak mahai gainean jarritz eta euren irabaziak handituz. Hori da krisi honetatik ateratzeko planteatzen diguten formula.

Hala ere, birusaren kontrako borrokan gizartea ez da geldirik egon. Langileak, ikasleak edo pentsiodunak izan gara birusa gelditu dugunak eta gizarte hau benetan sostengatu dugunak. Gu gara mundua mugitzen dugunak eta gu gara, bide horretan, mundua eraldatzeko boterea dugunak. Bereziki azpimarratzekoak izan dira auzo eta herrietan sortutako zaintza eta elkartasun sareak.

Pertsona zaurgarrienen autodefentsa kolektiboa auzolanean eraiki dugu guztion artean eta bizitza duina defendatzeko mekanismoak sortu ditugu. Herri honek berriro ere agerian utzi badela indarra eta badela gaitasuna, momentu okerrenetan ere, jendearen beharrianak lehenesteko kapitalaren gaintetik. Hori da krisiari aurre egiteko guk daukagun formula: langileon eta herritarron interesak jartzea erdigunean, eta orain, antzemandako beharrak, instituzioek zerbitzu publikoen bidez asetu behar duten unea da.

Orain, indar kolektibo hori bideratu behar dugu hemen ditugun erronkei aurre egiteko. Prekarietatearen gorakada errealitate probablea izango da, eta erreakzio neoliberala, arrazista eta heteropatriarkala gogortu egingo da. Elkarlanean eta datorrenari erabakitasunez eta eraso klabea aurre egitea tokatzen da. Krisiak sistema errotik aldatzeko aukerak ere badira. Goazen horren bila.

Azken greba feministak eta pandemiaren erdian zaintza-krisia aztertzeko sortu zen mahaia, urtarilaren 30eko greba orokorra, pentsiodunen mobilizazioak, migratzaileen eskubideen aldeko ekimen ugariak, larrialdi klimatikoaren aldeko manifestazioak eta ekintzak argi uzten gaituzte ez garela 0tik abiatu. COVIDek ez gaitu harrapatu oina aldatuta. Orain, inoiz baino garrantzitsuagoa da azken deialdietan errepikatu dugun mezua berreskuratzea eta azpimarratzea: pertsonen eta mugimenduen arteko sareak eta aliantzak indartu behar dira,

premiatzkoa da mobilizazioa eta antolaketa behetik eraikitzea eta ezinbestekoa da kaleak hartzea.

Gauzak aldatzeko eta arazoen sustraietara joateko bultzada eta bokazioarekin gatoz. Ez dugu normaltasunera itzuli nahi, ezta ustezko normaltasun berri batera jauzi egin ere. «Ordena berri» hori salbuespen-egoera eta alarma etengabea da langile eta sektore kolpatuenentzat; krisialdi iraunkorra da okerren dauden pertsonentzat. Horregatik, ezinbestekoa da aldaketa sozialean oinarritutako eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak lehen lerroan jarriko dituen eredu baterantz urratsak egiten jarraitzea.

Krisia kapitalak ordain dezala!

Aldaketa soziala orain! Bizitza duina guztiontzat!!

<https://eh.lahaine.org/miles-se-movilizan-en-mas>